Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko apirilaren 21a, osteguna — 74 — Jueves, a 21 de abril de 2022



## IRURAKO UDALA

*2022ko «udaleku irekietarako» begiraleak lehiaketa sistemaren bitartez kontratatzeko oinarriak eta deialdia onartzea.*

2022ko martxoaren 30eko 89/2022 zenbakidun Alkate Dekretu bidez Irurako Udaleko «Udaleku irekietarako» begiraleak lehiaketa sistemaren bitartez kontratatzeko prozesua arautuko duten oinarriak onartzea eta dagokion deialdia egitea erabaki da.

Eta horren berri ematen da dagozkion ondorioetarako. Bestetik, ebazpen honek administrazioaren bidea agortu du, eta horren aurka egiteko bi aukera ditu interesdunak; bata, berraztertze-errekurtsoa aurkeztea, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hilabeteko epean, Irurako Udal honen alkatearen aurrean; bestea, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Donostiako Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Irura, 2022ko apirilaren 4a.—Gorka Murua Macuso, alkatea.
(2238)

*2022ko «Udaleku Irekietarako» begiraleak kontratatzeko oinarri arautzaileak.*

1. *Deialdiaren xedea.*

Oinarri hauen helburua Irurako Gazteria Sailak antolatzen dituen «Udako udaleku irekietarako» begiraleen aldi baterako kontratazio laboralak lehiaketa sistemaren bitartez egiteko deialdia arautzea da.

Udaleku irekien helburua, berriz, zera da; 3-16 urte bitarteko ume eta nerabeentzat (hau da, HH3 eta DBH4koentzat, biak barne) gozamen espazio ludikoa eskaintzea balio batzuk landuz, hala nola, euskararen sustapena, autonomia pertsonala, berdintasuna eta elkarbizitza, besteak beste.

— Zerbitzua uztailaren 1etik 29ra emango da biak barne, eta parte hartzaile kopuruaren arabera aldatu ahal izango da. Lanaldia aipatutako programari aurre egiteko beharrak kontutan izanik Udalak ezartzen duena izango da.

— Ordainsaria: Irurako Udaleko ordainsarien taulako 6. maila.

— Aisialdiko begirale titulua lortzeko praktikak egiten dituztenena: aurreko ordainsariaren % 70a.

2. *Prozesuan parte hartzeko baldintzak.*

Onartua izateko eta, hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dira:

1.— Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo bestela, Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

## AYUNTAMIENTO DE IRURA

*Aprobación de las bases y la convocatoria para contratar a través del sistema de concurso a monitores/as de «udaleku irekiak» 2022.*

Mediante Decreto de Alcaldía n.º 89/2022 de fecha 30 de marzo de 2022, se acordó aprobar las bases y la convocatoria para el proceso de contratación a través del sistema de concurso de monitores/as para las «udaleku irekiak» del Ayuntamiento de Irura.

Lo que se publica para general conocimiento y para que surta los efectos oportunos. Contra la presente Resolución, que pone fin a la vía administrativa, puede interponer alternativamente o recurso de reposición potestativo, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, ante el Alcalde de este Ayuntamiento de Irura, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación.

Irura, a 4 de abril de 2022.—El alcalde, Gorka Murua Macuso.
(2238)

*Bases reguladoras para la contratación de monitores/as para las «Colonias Abiertas» 2022.*

1. *Objeto de la convocatoria.*

Es objeto de estas bases regular la convocatoria para la contratación laboral-temporal a través del sistema de concurso de monitores/as para las «Colonias abiertas de verano» que organiza el Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Irura.

El objetivo de las «Colonias abiertas de verano» por su parte, es la de ofrecer a los niños/as y adolescentes de 3 a 16 años (es decir, entre HH3-DBH4 ambos inclusive) un espacio de diversión lúdica, al mismo tiempo que se fomentan algunos valores como la promoción del euskera, la autonomía personal, la igualdad y la convivencia entre otros.

— La duración del servicio será desde el 1 hasta el 29 de julio, ambos inclusive, pudiendo modificarse en función del número de participantes. La jornada de trabajo será la que establezca el Ayuntamiento atendiendo a las necesidades del programa anteriormente citado.

— Retribución: Nivel 6 de la tabla retributiva del Ayuntamiento de Irura.

— Quienes realizan prácticas para obtener el título de monitor/monitora de tiempo libre: 70 % de la retribución anterior.

2. *Condiciones para tomar parte en el proceso.*

Para ser admitido/a y poder tomar parte en el proceso selectivo, será necesario cumplir los siguientes requisitos:

1.— Tener la nacionalidad de alguno de los Estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún Estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

EK\CV GAO-I-2022-02238

Aurkez daitezke, halaber, Europako Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

2.— 18 urte beteta izatea.

3.— Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza tituluaren jabe izatea.

4.— Euskaraz ulertu eta ongi hitz egitea.

5.— Funtzioak behar bezala betetzea eragotzi dezakeen gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

6.— Inolako administrazio publikoaren edo autonomia erkidegoetako konstituzio nahiz estatutu organoen zerbitzutik diziplina-espediente bidez baztertu gabea izatea eta funtzio publikoak betetzeko ezgaituta ez egotea.

7.— Natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.

3. *Eskabideak aurkeztea.*

Epea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 20 egun naturaleko epea egongo da izena emateko.

Eskabideak, behar bezala beteta, toki hauetako batean aurkeztu behar dira:

— Parte hartzeko eskaera eta horri atxiki beharreko dokumentazioa aurkezteko, merezimenduak alegatu eta egiaztatzeko, berariaz horretarako prestatutako inprimaki elektronikoa erabili ahal izango dute izangaiek; eskuragarri egongo da www.irura.eus webguneko lasterbide honetan: Espedienteak: Lan eskaintza: Begiraleak https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=046&hizkuntza=EU.

— Irurako Udaleko erregistroan (San Migel Plaza 1 20271, Irura). Ordutegia: 9:00-14:00.

— Eskariak, halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako moduetatik edozein erabilita aurkeztu ahalko dira.

— Gainerako izapideak egiteko, Irurako egoitza elektronikoko erregistro elektronikoa erabili ahal izango dute izangaiek. www.irura.eus.

4. *Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

— Eskaera orria beteta (I. eranskina) (www.irura.eus webgunean zein Irurako Udaleko Erregistroan eskuragarri egongo da).

— NANaren fotokopia.

— Eskatzen den tituluaren fotokopia.

— Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituen agirien fotokopiak.

— Natura sexualeko delituen ziurtagiria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako datarekin. Dokumenturik ez bada aurkezten eta, hautagaiak ez badu uko egiten espreski, udala arduratuko da eskatzeaz.

https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/eu/tramites/certificado-registro-central.

*Ohar garrantzitsuak:*

1. Merezimenduak baloratuak izateko, ezinbestekoa izango da hautagaiek, eskaera orrian (I. eranskina), idatziz jasotzea lehiaketan kontuan hartzea nahi dituzten merezimenduak. Eskaera orrian jasota ez dauden merezimenduak ez dira baloratuko. Eskaeran aipatzen dituzten merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak, aldiz, (titulu, lan-esperientzia eta bestelakoak) Udalak dokumentu hauek bere esku ez dituen kasue-

También podrán participar el cónyuge de los nacionales de los Estados miembros de la Unión Europea, siempre que no esté separado de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean estos descendientes menores de veintiún (21) años o mayores de dicha edad y vivan a sus expensas.

2.— Tener cumplidos 18 años de edad.

3.— Estar en posesión del título de Educación Secundaria Obligatoria.

4.— Entender y saber hablar bien euskera.

5.— No padecer enfermedad ni defecto físico ni psíquico que impida el normal desempeño de las funciones propias del puesto.

6.— No haber sido separado/a mediante expediente disciplinario del servicio de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las CCAA, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas.

7.— No tener antecedentes penales respecto a delitos de naturaleza sexual.

3. *Presentación de las solicitudes.*

Plazo: 20 días naturales a contar desde el siguiente a la publicación de estas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en alguno de los lugares que se relacionan a continuación:

— Para la presentación de la solicitud de participación y de la documentación que debe acompañar a la misma, los aspirantes podrán alegar y acreditar sus méritos utilizando el formulario electrónico habilitado al efecto, que estará disponible en el siguiente enlace de www.irura.eus: Espedientes: Oferta de empleo: Monitoras/es https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=046&hizkuntza=EU.

— En el Registro Municipal de Irura (San Migel Plaza 1, 20271, Irura). Horario: 9:00-14:00.

— Las instancias, podrán presentarse, así mismo, en cualquiera de las formas previstas en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

— Para el resto de trámites, los aspirantes podrán utilizar el registro electrónico de la sede electrónica de Irura. www.irura.eus.

4. *Documentación a presentar.*

— Hoja de inscripción cumplimentada (anexo I) (se podrá acceder a la misma en la página web http://www.irura.eus/ o en el mismo Registro del Ayuntamiento de Irura).

— Fotocopia del DNI.

— Fotocopia de la titulación exigida.

— Copias de los documentos que certificación los méritos alegados en la solicitud.

— Certificado de delitos de naturaleza sexual, con fecha posterior al 1 de enero de 2022. Si no se presenta ningún documento y el candidato no se opone expresamente, el ayuntamiento se hará cargo de solicitarlo.

https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/es/tramites/certificado-registro-central.

*Notas importantes:*

1. Para que los méritos sean valorados en el concurso, es imprescindible que los candidatos/as señalen en la hoja de inscripción (anexo I) los méritos que quieren que se les valore. Los méritos no señalados en la hoja de inscripción no serán valorados. Respecto a los documentos que acrediten dichos méritos, (títulos, experiencia laboral y otros) sólo deberán presentarlos en el caso de que el Ayuntamiento no tenga en su poder esos

EK\CV GAO-I-2022-02238

tan bakarrik aurkeztu beharko dituzte. Ondorioz, berriak diren agiri edo tituluak bakarrik aurkeztu beharko dira, aurrez Udalean aurkeztu ez direnak.

2. Lan esperientzia ziurtatzeko administrazio publikoak edo haren mendeko erakunde publiko batek igorritako kontratuaren fotokopia edo ziurtagiriak soilik onartuko dira proba gisa, betetako lanpostua eta kontratuaren edo zerbitzuaren iraupena adierazita utziz. Alderantziz, ez da onartuko.

*5. Izangaien onarpena.*

Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda Irurako Udaleko iragarki-oholean jarriko da ikusgai, baita Udaleko web orrian ere. www.irura.eus. Behin-behineko zerrendan adieraziko da baztertutako izangai bakoitza zergatik baztertu den. 5 egun balioduneko epea emango da baztertzea eragin duten akatsak eta omisioak zuzentzeko. Behin-behineko zerrendak automatikoki behin betikotzat joko dira erreklamaziorik egiten ez bada. Behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpen berri batean onartu edo baztertuko dira, halakorik balego; zerrenda horiek, halaber, aipatu moduan argitaratuko dira.

*6. Izaera pertsonaleko datuak.*

Hautaketa-prozesu hau publizitate-printzipioak arautzen du, beraz, ezingo dute prozesuan parte hartu beren datuak lagatzeko prest ez daudenek. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzen dutenek automatikoki baimena ematen diote Irurako Udalari beren eskabideetan adierazitako datu pertsonalak erabiltzeko, eta beharrezko diren argitalpenetan argitara emateko (aldizkari ofizialetan, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean). Horri dagokionez, aplikagarria izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen bermeei buruzko, abenduaren 5eko, 3/2018 Lege Organikoak dioena. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezeztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak erabil daitezke deialdia egin duen organoaren aurrean dbo@irura.eus posta elektronikoa bidalita.

*7. Komunikazioak, jakinarazpenak eta informazioa.*

Prozedura honetatik eratorritako komunikazio eta jakinarazpen guztiak Irurako Udaleko webgunean argitaratuko dira.

*8. Kalifikazio-epaimahaia.*

Honela osatuko da kalifikazio-epaimahaia:

Lehendakaria:

— Alex Lasa Rekalde jauna, kultur dinamizatzailea.

Bokalak:

— Miren Iosune Artola Arregi dinamizatzaile soziokulturala.

— Aintzane Aguirre Otamendi kultura laguntzailea.

*9. Hautaketa prozesua.*

Ondorengo irizpideei ezartzen zaizkien puntuazioen arabera, hautagai bakoitzeko guztizko puntuazio bat aterako da eta horren arabera kontratazioa egiteko erabiliko den hurrenkera lortuko da.

* Titulazioa:

— Eusko Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale titulua: 5 puntu.

— Eusko Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdirako Zuzendari titulua: 2 puntu.

— Beste autonomia elkarteek homologatutako Aisialdi Begirale agiria: 3 puntu.

— Beste autonomia elkarteek homologatutako Aisialdi Zuzendari agiria: 1 puntu.

documentos. Esto es, sólo deberán presentar junto a la instancia nuevos certificados o títulos no presentados anteriormente en el Ayuntamiento.

2. La acreditación de la experiencia laboral se realizará mediante fotocopia del contrato o mediante certificados expedidos por la Administración pública o por un organismo público dependiente de ella, en la que deberá constar adecuadamente el puesto de trabajo y su duración, de lo contrario no se tendrá en cuenta.

*5. Admisión de aspirantes.*

La lista de aspirantes admitidos y excluidos será expuesta en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento de Irura así como en la página web municipal www.irura.eus. La relación provisional expresará el motivo de exclusión de cada uno de los aspirantes excluidos. Se concederá un plazo de 5 días hábiles para subsanar los errores y omisiones que hubieran motivado la exclusión. Las listas provisionales se entenderán automáticamente elevadas a definitivas si no se producen reclamaciones. Si las hubiere, serán aceptadas o rechazadas en una nueva resolución por la que se aprueben las listas definitivas, que se harán públicas, así mismo, en la forma indicada.

*6. Datos de carácter personal.*

El presente proceso selectivo está regido por el principio de publicidad por lo que no se admitirá la solicitud de la persona aspirante si esta no consiente la cesión de sus datos. La participación en el proceso selectivo supone automáticamente la aceptación por parte de los aspirantes del tratamiento de sus datos de carácter personal facilitados al Ayuntamiento de Irura en su instancia, así como a que se les identifique en las publicaciones preceptivas (boletines oficiales, en el tablón de anuncios y la página web). En relación a ello, deberá tenerse en cuenta la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse al órgano convocante a través del correo electrónico dbo@irura.eus.

*7. Comunicaciones, notificaciones e información.*

Las comunicaciones y notificaciones derivadas de este procedimiento se efectuarán por medio de su publicación en la página web municipal.

*8. Tribunal evaluador.*

El Tribunal Calificador estará compuesto por:

Presidente:

— D. Alex Lasa Rekalde, dinamizador de Cultura.

Vocales:

— Miren Iosune Artola Arregi dinamizadora sociocultural.

— Aintzane Aguirre Otamendi auxiliar de cultura.

*9. Proceso de selección.*

Teniendo en cuenta la puntuación que se va a asignar según los criterios señalados a continuación, se obtendrá una puntuación total para cada candidato y en base a ello se obtendrá una clasificación final que se utilizará para realizar la contratación.

* Titulación:

— Título de Monitor/a de Ocio Infantil y Juvenil homologado por el Gobierno Vasco: 5 puntos.

— Título de Director de Ocio Infantil y Juvenil homologado por el Gobierno Vasco: 2 puntos.

— Título de Monitor/a de Ocio Infantil y Juvenil homologado por otras Comunidades Autónomas: 3 puntos.

— Título de Director de Ocio Infantil y Juvenil homologado por otras Comunidades Autónomas: 1 punto.

EK\CV GAO-I-2022-02238

* Ikasketak:

Unibertsitate mailako nahiz Goi mailako Heziketa Zikloa amaituta izatea. Honako titulazio hauek baloratuko dira:

— Gizarte eta kultur animazioa: 5 puntu.

— Gizarte eta kirol animazioko irakaskuntza: 5 puntu.

— Magisteritza: 1 puntu.

— IVEF-SHEE: 1 puntu.

— Gizarte hezkuntza: 1 puntu.

— Pedagogia-psikologia: 1 puntu.

— Gizarte integrazioa: 1 puntu.

— Haur Hezkuntzan goi mailako zikloa: 1 puntu.

* Prestakuntza-ikastaroak: Gehienez 5 punturekin baloratuko da.

— Jolasa, aisialdia, genero berdintasuna umeen aisialdian, e.a.ekin erlazionaturiko ikastaroak: gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko 0,5 puntu (20 ordutik beherakoak ez dira kontuan hartuko).

Lehen sorospen ikastaroa: 0,50 puntu.

* Euskara:

3HE/C1/baliokidea: 1 puntu.

* Lan-esperientzia: Gehienez 7 punturekin baloratuko da.

— Ludoteka, aterpetxe edo baserri eskola batean haurren hezitzaile lanak egiteagatik: urte bakoitzeko puntu bat (urte bete baino gutxiagoko epeak ez dira kontuan hartuko).

— Gazteleku batean hezitzaile lanak egiteagatik: urte bakoitzeko 0,75 puntu (urte bete baino gutxiagoko epeak ez dira kontuan hartuko).

— Udaleku itxietan zuzendari edo koordinatzaile lanetan esperientzia izatea: 7-11 egun bitartean 0,30 puntu. 12-15 egun bitartean 0,60 puntu.

— Udaleku irekietan zuzendari edo koordinatzaile lanetan esperientzia izatea: 15 eguneko 0,55 puntu.

— Udaleku itxietan begirale lanetan esperientzia izatea: 7-11 egun bitartean 0,25 puntu. 12-15 egun bitartean, 0,50 puntu.

— Udaleku irekietan begirale lanetan esperientzia izatea: 15 eguneko, 0,45 puntu.

— Aisialdi taldeetan begirale gisa izandako esperientzia: puntu 1 urte bakoitzeko, gehienez 3 puntu arte.

* Talde dinamika: Gehienez 7 punturekin baloratuko da.

*10. Izangaien zerrenda.*

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa hautaketa prozesu osoan lortutako emaitzen batura izango da.

Berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira hurrenez hurren:

1. Lan esperientzia.
2. Zuzendari edo begirale titulua izatea.
3. Ikasketak.
4. 3 HE/C1 edo baliokidearen jabe izatea.

Hautaketa bukatu ondoren, Epaimahai kalifikatzaileak lortutako puntuazioaren ordenaren araberako zerrenda argitaratuko du Irurako Udaleko iragarki taulan eta web orrian, eta onarpen proposamena igorriko du, aurretik aipatutako kontratazioak egiteko.

Emaitzen zerrendarekin, lan poltsa sortuko da, Irurako Udalean sor litezkeen begirale eta hezitzaile perfila duten beharrei aurre egiteko erabiliko da.

* Estudios:

Haber finalizado el Ciclo Formativo de Grado Superior y de Grado Universitario. Se valorarán las siguientes titulaciones:

— Animación sociocultural: 5 puntos.

— Enseñanza y animación socio deportiva: 5 puntos.

— Magisterio: 1 punto.

— IVEF-SHEE: 1 punto.

— Educación social: 1 punto.

— Psicología pedagógica: 1 punto.

— Integración social: 1 punto.

— Ciclo superior de Educación Infantil: 1 punto.

* Cursos de formación: se valorará con 5 puntos como máximo.

— Cursos relacionados con el juego, el ocio, la igualdad de género en el tiempo libre infantil, etc.: 0,5 puntos por cada curso de al menos 20 horas (no se tendrán en cuenta los menores de 20 horas).

Curso de primeros auxilios: 0,50 puntos.

* Euskera:

PL3/C1/equivalente: 1 punto.

* Experiencia profesional: se valorará con 7 puntos como máximo.

— Trabajos realizados en una Ludoteca, albergue o granja-escuela como educador/a de niñas y niños: 1 punto por año trabajado (no se considerarán los períodos inferiores a un año).

— Trabajos realizados en un Gazteleku como educador/a: 0,75 puntos por año trabajado (no se considerarán los períodos inferiores a un año).

— Experiencia en puesto de dirección o coordinación en colonias cerradas: de 7 a 11 días, 0,30 puntos y de 12 a 15 días, 0,60 puntos.

— Experiencia en puesto de dirección o coordinación en colonias abiertas: por cada 15 días 0,55 puntos.

— Experiencia como monitor/a en colonias cerradas: de 7 a 11 días, 0,25 puntos, y de 12 a 15 días, 0,50 puntos.

— Experiencia como monitor/a en colonias abiertas: por cada 15 días, 0,45 puntos.

— Por realizar funciones de monitor/a en grupos de tiempo libre: 1 punto por año, hasta un máximo de 3 puntos.

* Dinámica de grupo: se valorará con un máximo de 7 puntos.

*10. Lista de aspirantes.*

La calificación final estará constituida por el total de las puntuaciones obtenidas en el proceso selectivo.

En caso de empate, el orden se establecerá, atendiendo sucesivamente a los siguientes criterios:

1. Experiencia profesional.
2. La titulación de monitor/a o director/a.
3. Formación.
4. Tener acreditado el PL 3/C1 o equivalente.

El Tribunal Calificador hará pública en el Tablón de Anuncios y pagina web del Ayuntamiento de Irura la relación de aspirantes por orden de puntuación alcanzada, y elevará propuesta de aprobación para su utilización en la contratación arriba mencionada.

Con la lista resultante, se creará una bolsa para cubrir las necesidades de personal con perfiles de educador o monitor que puedan surgir en el Ayuntamiento de Irura.

EK\CV GAO-I-2022-02238

*Oharra:* Udako udaleku ireki hauetarako beharrak kontuan hartuta, uretako sorosleen titulazioa indarrean aurkezten dutenen artean puntuazio altuena duenak, lehentasuna izango du lanaldi osoko kontratupean aritzeko.

Izendapenaren ezaugarriak: begirale-soroslea.

4 lanpostu gordeko dira Aisialdiko begirale titulua lortzeko praktikak egin ditzaten, baldin eta aisialdiko begirale-tituluaren proba teorikoa gainditua badute.

*11. Begiraleen betebeharrak.*

* Laneko era guztietako hutsegiteak 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira idatziz eta ondoren, dagokion hutsegitea zuritzeko dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko da.

* Arrazoitu gabeko lan hutsegiteak falta oso larriak izango dira eta urriaren 30eko 5/2015 Errege Lege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren eraberritutako testua onartzen duenaren 96)b artikuluan esaten denaren arabera jokatuko da. Hau da, langilea kaleratua izan ahal izango da eta aurrerantzean berriro kontratatzeko desgaitua gelditu liteke.

* Kontratatua izateko, ezinbesteko baldintza izango da prestaketa asteburuan parte hartzea. Prestaketa asteburua ekainaren 4 eta 5ean izango da. Edonola ere, ezinbestekoa izango da esandakoan bertaratzea eta prestakuntzarako aurreikusitako ordu guztietan asistentzia betetzea.

Ezarritako baldintza hau ez betetzeak, hautagaiak zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko du automatikoki. Era berean, zerrendatik kanpo gelditzea ekarriko luke, prestaketa asteburuan ikusiko balitz prozesuan parte hartzeko baldintza guztiak ez direla betetzen.

Aurreikuspen hauek guztiak Covid-19ak momentu horretan ahalbidetzen duen egoeraren menpe egongo dira, eta beraz, aldaketak izan litezke.

*Aviso:* Teniendo en cuenta las necesidades para estas colonias abiertas de verano, la de mayor puntuación entre quienes presenten titulación de socorrismo acuático en vigor, tendrá preferencia para acceder a un contrato a tiempo completo.

Características de la designación: monitor/a-socorrista.

Se reservarán 4 puestos para prácticas para obtener el título de monitor y monitora de tiempo libre, siempre y cuando hayan aprobado la prueba teórica del Título de monitor-monitora de tiempo libre.

*11. Obligaciones de los monitoras/es.*

* La ausencia del puesto de trabajo, sea cual sea la razón, deberá conllevar una notificación por escrito 48 horas antes de que se produzca.

* Las ausencias del puesto de trabajo que no estén justificadas serán consideradas faltas muy graves. En esos casos se aplicará lo que dice la el Real Decreto legislativo 5/2015, de 30 de octubre que aprueba el texto refundido de la Estatuto Básico del Empleado Público en el apartado b, artículo 96. Es decir, que se podrá aplicar el despido disciplinario y puede que en adelante comporte la inhabilitación para poder ser contratado/a.

* Para ser contratado será condición indispensable, acudir al fin de semana de preparación. El fin de semana de preparación será el 4 y 5 de junio. En cualquier caso, será como siempre imprescindible acudir durante todas las horas de preparación previstas el fin de semana que corresponda.

El no cumplimiento de los requisitos establecidos supondrá la expulsión automática de la lista de candidatos. Así mismo, si durante el fin de semana de preparación se detecta que no se cumplen todos y cada uno de los requisitos establecidos en estas bases, ello supondrá igualmente la expulsión automática de la lista de candidatos.

Todas estas previsiones estarán condicionadas por la situación de Covid-19 que se tenga en ese momento, por lo que puede que haya algunos cambios.


EK\CV GAO-I-2022-02238

Irurako udala

**IRURAKO UDALA/ AYUNTAMIENTO DE IRURA**

**DEIALDI PUBLIKOAN PARTE HARTZEKO ESKAERA**
SOLICITUD PARA PARTICIPACIÓN EN CONVOCATORIA PÚBLICA

| **Sarrera Erregistroa**/ Registro de Entrada | **Lanpostu honetara aurkezten da/** Se presenta a la siguiente plaza |
|---|---|
| | |

**1.-NORBERAREN DATUAK**/ DATOS PERSONALES

| **Lehen Abizena**/ Primer Apellido | **Bigarren Abizena**/ Segundo Apellido | **Izena**/ Nombre |
|---|---|---|
| | | |

| **N.A.N./** D.N.I. | **Jaiotze data**/ Fecha de nacimiento | **Telefonoa**/Teléfono |
|---|---|---|
| **Sexua/** Sexo | **Helbide elektronikoa:** | |

| **Helbidea**/ Domicilio | **Herria-Herrialdea/** Población-Provincia | **P.K.**/C.P. |
|---|---|---|
| | | |

**2.- AISIALDI TITULAZIOA**/ TITULACIÓN DE OCIO
**Haur eta gazteen aisialdi titulua**/ Título de tiempo libre infantil y juvenil

| **Titulua**/ Título | **Zentroa eta Herria**/ Centro y población | **Data**/Fecha |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

EK\CV GAO-I-2022-02238

Irurako udala

**3.- HEZKUNTZA**/ FORMACIÓN
**Titulu akademikoa**/ Título académico

| **Titulua**/ Título | **Zentroa eta Herria**/ Centro y población | **Data**/Fecha |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

**4.- ESPERIENTZIA**/ EXPERIENCIA

| **Sarrera Data**/ Fecha ingreso | **Irteera data**/ Fecha baja | **Administrazioaren izena**/Nombre de la Administración | **Izandako lanpostua**/Puesto que ocupó |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

**5.- BESTE TITULU EDO IKASKETAK**/ OTROS TÍTULOS O ESTUDIOS
**Merituen balioztapenerako datuak ( Tituluak, ikastaroak, etabar....)**
Datos para la valoración de Méritos ( Títulos, cursillos, etc....)

| **Tituluak edo ikasketak**/ Títulos o cursos | **Iraupena: urteak-orduak**/Duración: años-horas |
|---|---|
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |

**ESKAERA HONEKIN BATERA DOAZEN AGIRIAK:**
DOCUMENTOS QUE SE ADJUNTAN A ESTA SOLICITUD:

☐ **N.A.N. edo pasaportearen fotokopia**/ Fotocopia del DNI o pasaporte.

☐ **Haur eta gazteen aisialdi tituluaren fotokopia**/ Fotocopia del título de tiempo libre infantil y juvenil

☐ **Titulu akademikoaren fotokopia**/ Fotokopia del título académico

☐ **Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiriaren fotokopia** / Fotocopia del certificado de acreditación del Perfil Lingüístico.

☐ **Merezimendu lehiaketarako egiaztagirien fotokopiak**/ Fotocopias de los certificados de los méritos alegados.

☐ **Aurreko urteetan Udaletxean aurkeztutako dokumentuak kontuan izatea eskatzen dut** / Solicito que se tenga en cuenta los datos presentados en el Ayuntamiento en convocatorias anteriores

| | |
|---|---|
| Gainera, aipatutako helbururako beharrezkoa den beste edozein datu pertsonal egiaztatu ahal izango du, beste edozein organismo edo administrazio publikoren edo erakunde pribaturen datu-baseak egiaztatuz, finantza-datuak barne. Horien artean, natura sexualeko delituei dagokiena, Justizia Ministerioan.<br><br>Eskatzailea egiztatze horren aurka ager daiteke, eta kasu horretan, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.<br><br>☐ **Aurka nago** eta eskatutako dokumentazioa aurkezten dut **(Natura sexualeko ziurtagiria)** | Además, podrá comprobar cualquier otro dato de carácter personal que sea necesario para la finalidad mencionada, verificando las bases de datos de cualquier otro Organismo o Administración Pública o entidad privada, incluidas las financieras. Entre ellos, el relativo a los delitos de naturaleza sexual en el Ministerio de Justicia.<br><br>El solicitante podrá oponerse a la comprobación de estos datos, en cuyo caso deberá aportar los correspondientes certificados.<br><br>☐ **Me opongo** , y aporto la documentación requerida **Certificado de delitos de naturaleza sexual** |

Behean sinatzen duenak, eskaera honi dagokion deialdi publikoan onartua izatea ESKATZEN DU, eta bertan azaltzen diren datuak egiazkoak direla eta Oinarrietan eskatutako baldintzak betetzen dituela BAIEZTATZEN DU, eskatutakoan agiri original bidez zurituko dituela hitz ematen duelarik.

El abajo firmante SOLICITA ser aceptado en las pruebas de selección correspondientes a la presente instancia y DECLARA que los datos que hace constar en la misma son verídicos y que cumple todas las condiciones especificadas en las bases, así como que, cuando le sea solicitado, presentará las correspondientes originales.

EK\CV GAO-I-2022-02238

Irurako udala

**Iruran, 20….ko..................................ren......an**/
Irura, a........de.......................de 20…..

**Sinadura**/ Firma

**IRURAKO UDALEKO ALKATE JAUNARI**
AL SR. ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE IRURA

**Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, instantzi hau betetzerakoan emandako datuak Irurako Udaletxeak tratatuak izango direla jakinarazten zaizu. Era berean, jakinareazten dizugu, zure datuak gordeta geldituko direla eta deialdi puubliko honetako helburuetarako soilik erabiliak izango direla.**
**Bestalde, datuetara iristeko, zuzentzeko, indarrik gabe uzteko eta datuen aurka egiteko, Irurako Udaletxearen helbidera jo dezakezula jakinarazten dizugu: Irurako Udala, San Migel Plaza, 1. 20271 Irura, Gipuzkoa.**
**Udala ez da inolaz ere izango emandako datuen zilegitasun, egiatasun eta zehaztasunen erantzule. Datuak aldatzen badira, zure erantzunkizuna da hori udalari jakinaraztea.**

*En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos de Carácter Personal, le informamos que los datos personales que nos facilite mediante el cumplimiento del presente formulario, serán objeto de tratamiento por el Ayuntamiento de Irura.*
*Así mismo, usted consiente que los datos sean conservados y utilizados únicamente para los fines de esta convocatoria pública.*
*El Ayuntamiento le informa que puede ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición en la plaza San Migel, 1. 20271 Irura, Gipuzkoa.*
*El Ayuntamiento en ningún caso será responsable de la licitud, veracidad y exactitud de los datos facilitados. Queda bajo su exclusiva responsabilidad la notificación al Ayuntamiento de cualquier modificación en los mismos.*

EK\CV GAO-I-2022-02238